

## EUSKO IKASKUNTZA-SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS

### ESTATUTU ALDAKETA

(2016.6.18ko Ohiko Batzar Nagusian onartua)

#### AITZINSOLASA

EUSKO IKASKUNTZA – SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS 1918an sortu zuten Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako Foru Aldundiek.

Euskal gizartearen eta kulturaren adierazpide guztiei buruzko ikerketa zientifikoa eta analisisia sustatu eta hedatzea zen haren helburua. Eta arlo horien gaineko jardueraren erreferentzia eta erakunde kohesionatzailea izan da.

EUSKO IKASKUNTZA–SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOSek honako bereizgarri hauek izan ditu bere historian zehar: diziplina-aniztasuna, lurralde-aniztasuna, lanbide-aniztasuna, malgutasuna eta koordinazio-gaitasuna.

Euskal gizartearen eta kulturaren oinarritzko gabezia eta erronken analisiari aurrea hartzeko joera izan du beti, gizarte-etzabaida sorrarazi du ikerketa eta proposamen berritzaileen bidez, gizarte zibilaren parte-hartze aktiboa eta integrazioa lagundu eta bultzatu ditu jakintzaren zabalkundearen bidez, bokazio europarra eta nazioartekoa erakutsi du, eta kultura hori gertatu eta garatzen den lurraldeetan azpiegitura garrantzitsuen gabeziei erantzun die, erakunde juridiko egokiak sortuz eta sustatuz.

Gizarte demokratiko eta bidezkoago batekin duen konpromisoaren adierazgarria emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde erakusten duen jarrera da.

2014. urtean, Estatutuak eredu berrira egokitu eta estrategia- eta gestio-orientabidea aldatu egin zuen Elkarteak, 2013ko abenduaren 20ko Batzar Nagusian hartutako erabakien ondorioz.

EUSKO IKASKUNTZA – SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS (EI-SEV) Onura Publikoko Elkartearen Estatutu hauek, indarrean dagoen araudi erregulatzaileak agindutakoa betez aldatu dira, 2014ko abenduaren 19an egindako Ezohiko Batzar Nagusiaren erabakiz.

#### LEHEN KAPITULUA

#### NORTASUN EZAUGARRIAK

##### 1. art.: Araubide juridikoa

EUSKO IKASKUNTZA – SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS (EI-SEV) onura publikoko, xede orokorretako eta irabazi asmorik gabeko Elkarteak honako araudi hauek beteko ditu: Elkartzeko Eskubidea erregulatzen duten arauak, Estatutu hauek, Elkartearen Gobernu-Organoeak hartutako baliozko erabakiak eta printzipio demokratikoetan oinarritutako gainerako erregelamenduzko xedapenak.

##### 2. art.: Xedea

1. EI-SEVen xedea honako hau da: euskal gizartearen eta kulturaren adierazpide guztien iraupenak eta finkapenak duten garrantziaz jabeturik, gogoeta, ikasketa, ikerkuntza, prestakuntza eta zabalkundearen bidez haien kohesioa, eraldaketa eta modernizazioa sustatzen dituzten guztiak elkartzea.



2. Elkaratearen jarduerak, gure kulturaren ezaugarri nabarmenak eta gizarte, ekonomia, politika eta kultura alorretako ikuspegia ez ezik, estrategikotzat jotzen diren kultura unibertsalaren gainerako elementuak ere aintzat hartuko ditu. Arreta berezia jarriko du, betiere, euskal lurraldeen –Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, Nafarroa Beherea, Zuberoa eta Lapurdi– bereizgarrietan eta baita Euskal Komunitate Globalean ere.
3. Funtsean diziplina anitzeko proiektu eta jardueren inguruan egituratzen da El-SEV, gizartearen zeharkako arazoetara argi eta garbi bideratuta.
4. El-SEVek eskura dituen baliabide guztiak erabili ahal izango ditu bere xedeak lortzeko, baita, bere kabuz edo beste erakunde batzuekin elkarlanean, egitura edo elkarte filialak sortzea ere. Horiek El-SEVen jarraibide eta ardurapean jardungo dute beti.

### 3. art.: Hizkuntzak

El-SEVen berezko hizkuntza euskara da, gaztelania eta frantsesa ere haren hizkuntza ofizialak izanik. Ingelera ere erabiliko da, nazioarteko hizkuntza den heinean.

### 4. art.: Nortasun juridikoa. Enblema eta sinboloak

1. Eusko Ikaskuntzak erabateko nortasun juridikoa du, eta, ondorioz, honako hauetarako gaitasuna:
  1. Zientziaren eta kulturaren alorreko beste erakunde batzuekin koordinatzeko eta harremanak izateko, dagozkion hitzarmenak sinatuz.
  2. Kostu bidezko edo doako era guztietako ondasunak eskuratu eta edukitzeko, kontratu bidez edozein pertsona publiko edo pribaturekin behartzeko eta Zuzenbidearen arabeko egintzak betetzeko.
  3. Bere jardueratik, bazkide eta erakundeek ekarpenetatik eta babesleen dohaintzetatik datozen baliabide ekonomikoak libreki erabiltzeko. Era berean, ondare propioa izango du bere helburuak betetzeko, dagokionean eta dagokionari kontuak eman behar baditu ere.
2. El-SEVen lema “Asmoz eta Jakitez” da.
3. El-SEVen enblema tradizionala zuhaitz bat da, haritza, Elkarateak sortu zenetik enblema hori erabili baitu. Batzar Nagusiari dagokio sinbolo horren adierazpen ofizialak eta erabilpen baimenak berrestea eta Kontseilu Errektoreari dagokio bere administrazioa eta diseinu eguneraketak onartzea.

### 5. art.: Elkartea: egoitza soziala

Elkaratearen egoitza soziala Donostiako Miramar Jauregian dago. Horrez gain, delegazio operatiboak ditu Iruñean, Gasteizen, Bilbon eta Baionan.

### 6. art.: Lurralde-eremua

El-SEVen lurralde-eremuak, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, Nafarroa Beherea, Zuberoa eta Lapurdi hartzen ditu barne, baita, zentzu zabalago batean, Euskal Komunitate Globala ere.

### 7. art.: Iraupena eta izaera demokratikoa

1. Elkarateak izaera iraunkorra du.
2. Elkaratearen barne-antolakuntza eta funtzionamendua demokratikoak, gardenak eta parte-hartzaileak dira, eta aniztasunarekiko errespetuz jardungo du beti. Elkartzeko oinarritzko eskubidearen eta gainerako oinarritzko eskubideen edozein alderdi urratzen duten hitzarmenak, estatutu-xedapenak eta erabakiak erabat deusezak izango dira.

### 8. art.: Baliabide ekonomikoak

1. Erakunde sortzaileak –Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako Foru Aldundiek–, erakunde babesleak –hala nola Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuak, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiak edo Akitaniako Eskualde Kontseiluak, Espainiako Gobernuak eta Europako Batzordeak–, eta

- beste edozein erakunde fisikok edo juridikok, publikoak zein pribatuak, egindako aurrekontuko diru-izendapenak eta era guztietako ekarpenak, I+G+b edo kulturaren alorreko proiektuetarako dirulaguntzak, dohaintzak edo legatuak.
2. Bazkideen kuotak eta ekarpenak.
  3. Bere zerbitzu- eta argitalpen-salmentaren emaitzak eta bere jardueren bidez lortutako sariak eta marjinak.
  4. Ekitaldi ekonomikoaren itxiera data abenduak 31 izango da

## **BIGARREN KAPITULUA**

### **GOBERNU ETA ADMINISTRAZIO ORGANOAK**

#### **Lehen atala: Xedapen orokorrak**

##### **9. art.: Elkartearen gobernu-organoak, ordezkaritza eta zuzendaritza**

1. Hona hemen elkartearen ordezkaritza- eta zuzendaritza-organoak:
  - a) Kide anitzeko organoak: Batzar Nagusia eta Kontseilu Errektorea.
  - b) Kide bakarreko organoak: Lehendakaritza eta Idazkaritza.
2. Organo hautetsiek lau urteko agintaldia izango dute eta berriz hautatu ahal izango dira.
3. Elkartearen ohiko kudeaketa Zuzendaritza Batzordearen esku egongo da, eta Zuzendaritza Nagusiak koordinatuko du.
4. Kide anitzeko organoetako kideek kargua utziko dute edo kargutik kenduko dituzte beren agintaldia amaitzeagatik eta, horrez gain, honako arrazoi hauengatik:
  - a) El-SEVeko kide izateari uzteagatik.
  - b) Karguari uko egiteagatik.
  - c) Heriotzagatik.
  - d) Arrazoirik eman gabe ondoz ondoko hiru bileratara edo aldizkako seitarra ez joateagatik edo karguko erantzukizunak ez betetzeagatik, Kontseilu Errektoreko 7 kidek gutxienez hala irizten diotenean.
5. Lehendakariak kargua galdu ahal izango du Batzar Nagusiaren zentsura-mozioaren ondorioz.
6. El-SEVen gobernu- eta gestio-organoen jarduera ordaindua izan daiteke, Batzar Nagusiak hala erabakitzen badu.

##### **10. art.: Emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea**

Elkartearen gobernu-, ordezkaritza- eta zuzendaritza-organoak izendatzean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakume eta gizonen kopuru orekatua sustatuko da.

#### **Bigarren atala: Batzar Nagusia**

##### **11. art.: Batzar Nagusia**

1. Bazkide guztiek osatzen dute eta Elkartearen organo gorena da.
2. Batzar Nagusiak honako eskumen hauek ditu:
  - a) Plan Estrategikoak eta Urteko Gestio Planak onartzea.
  - b) Urteko kontuak eta urteko aurrekontua aztertu eta onartzea.
  - c) Lehendakaria eta Kontseilu Errektorea osatuko duten pertsonak izendatzea.
  - d) Bazkideen ohiko eta ezohiko kuotak finkatzea.
  - e) Elkartearen Estatutuak aldatzea.

- f) Elkartea desegitea.
- g) Ondare higiezinak eskuratu eta besterentzea.
- h) Ordezkaritza-organoetako kideen ordainsaria erabakitzea, hala badagokio.
- i) Beste elkarte batzuekin federatzea edo konfederatzea edo, hala badagokio, horietakoren bat uztea.
- j) Bazkideak behin betiko bereizteko erabakia berrestea.
- k) Sozietate filialak edo partaidetuak eratu edo likidatzea.
- l) Beste organo sozial baten esku ez dagoen edo legeriak aitortzen duen beste edozein eskumen.

## 12. art.: Bileren maiztasuna

Batzar Nagusia urtean behin bilduko da eta Kontseilu Errektoreak egingo du biltzeko deialdia. Ezohiko bilerak ere egin ahal izango ditu, Kontseilu Errektoreak hala erabakitzen duenean edo bazkideen herenek hala eskatzen dutenean.

## 13. art.: Deialdiak

- 1. Batzar Nagusia biltzeko deialdia idatziz egingo da, bileraren lekua, eguna, ordua eta gai-zerrenda adieraziz. Deialdia bileraren eguna baino gutxienez 15 egun lehenago egin behar da.
- 2. Batzar Nagusiak, ohikoak zein ezohikoak, balioz eraturik geratuko dira lehen deialdian deitutako kideen herenak bertaraturik daudenean; eta bigarren deialdian boto-eskubidea duten bazkideen kopurua edozein izanda ere.

## 14. art.: Erabakiak hartzea

Batzar Nagusiaren erabakiak bertaratu edo ordezkaturiko bazkideen gehiengo soiluz hartuko dira. Hala ere, Estatutuak aldatzeari, ondasun higiezinak eskuratu edo besterentzeari eta Elkartea desegiteari buruzko erabakiak hartzeko ezinbestekoa izango da bertaraturiko edo ordezkaturiko bazkideen bi hereneko gehiengo kalifikatua.

## 15. art.: Ordezkaritza

Bazkideek beste edozein bazkide eskuordetu ahal izango dute idatziz Batzar Nagusian beren ordezkari izateko. Ordezkaritza-agiria edozein bitartekoren bidez bidali ahalko da eta Batzar Nagusiko Idazkariaren esku egon beharko du lehen deialdian finkaturiko ordua baino gutxienez ordubete lehenago.

## Hirugarren atala: Kontseilu Errektorea

### 16. art.: Kontseilu Errektorea

Elkartearen gobernu- eta zuzendaritza estrategikoaren organoa da. Gutxienez hiru hilean behin ohiko bilera egingo du, Lehendakariak gutxienez astebete lehenago biltzeko deialdia egin ondoren.

### 17. art.: Kontseilu Errektorearen osaera

- 1. Kontseilu Errektoreak honako kide hauek izango ditu:
  - a) Elkartearen Lehendakaria.
  - b) Batzar Nagusiak izendatutako 10 kide, lurralde bakoitzeko bi. 10 kideetatik 5, lurralde bakoitzetik bana, lurraldeko Lehendakariorde kargua izango dute
  - c) Erakunde sortzaile bakoitzaren ordezkaritza bat: Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Nafarroako Foru Erkidegoko Gobernuak.
  - d) Idazkari Nagusia, Diruzaintza funtzioak ere beteko dituelarik.

- e) Eusko Ikaskuntzako langileen ordezkari bat, baina ezin izango da Zuzendaritzako kidea izan.
  - f) Zuzendari Nagusia (gonbidatu gisa).
2. Elkarteko Idazkari Nagusia izango da Kontseilu Errektoreko idazkaria ere.
  3. Kontseilu Errektoreko kideek EAEko Elkartearen 7/2007 Legearen 17.artikuluaren 3. Eta 4. Ataletan aurreikusitako baldintzak bete beharko dituzte.

### 18. art.: Elkarteak beste erakunde batzuetan dituen ordezkariak izendatzea

Elkarteak edozein erakunde publiko edo pribatutan behar dituen ordezkariak Kontseilu Errektoreak izendatuko ditu, eta egoki irizten dionean kendu egingo ditu, horren arrazoia adierazita.

### 19. art.: Kontseilu Errektorearen zereginak

Kontseilu Errektoreak, Elkartearen zuzendaritza-organoa den aldetik, honako zeregin hauek izango ditu:

- a) Batzar Nagusiaren erabakiak betearaztea.
- b) Plan Estrategikoak, Urteko Gestio Planak eta Aurrekontuak behin-behinean onartu eta Batzar Nagusira eramatea, berak behin betiko onartzeko.
- c) Egoki deritzon Barne Araudiak onartzea.
- d) Alor estrategikoetako programa eta proiektuen kalitate zientifikoa eta bikaintasuna bermatuko duten organoak edo barne- edo kanpo-prozedurak izendatzea.
- e) Lehendakariak proposatuta, Zuzendari Nagusia izendatu eta kargugabetzea, eta egoki deritzon ahalordeak eta sinadurak aitortzea. Zuzendari Nagusiaren lana gainbegiratu eta Plan Estrategikoak, Urteko Gestio Planak eta Aurrekontuak betetzen direla egiaztatzea.
- f) Bazkideak berriak eta borondatezko bajak onartez, eta sozietate filialak, fundazioak, katedrak, ikerketa-mintegiak, laborategiak eta ikerketa-zentroak, lantaldeak eta batzordeak, zerbitzu zientifikoak eta antzekoak sortzea, Elkartearen funtsezko helburuen barruan.
- g) Egoki deritzon proiektuak, ikastaroak, hitzaldiak, erakusketak, lehiaketak, argitalpenak eta abar sustatzea, eta horretarako beharrezko ekimenak hartzea.
- h) Egoki deritzon txostenak eta ordaindutako lanak biltzea, eta dagozkien batzorde delegatuak izendatzea.
- i) Erakundeek eta partikularrek bideratutako dokumentazioa jaso eta aztertzea, eta horiei gai garrantzitsuak kontsultatzea, egin beharreko lanak proposatzea eta argitaratzeko ikerketak eskaintzea.
- j) Elkartearen baliabide ekonomikoen esku ez dauden kultura-lanak eta proiektuak erakunde horiei proposatzea.
- k) Sortutako erakundeen garapena zaintzea, horretarako behar diren lankidetzak moralak, diruzkoak eta era guztitakoak proposatuz eta euskal gizartearen eta kulturaren helburuekin harmonian bat etorraraziz.
- l) Elkartearen fondoak administratu eta gestionatzea, eta beharrezkoak diren bulego eta sailak sortu eta mantentzea. Ondoz ondoko Eusko Ikaskuntzen Kongresuak deitu, antolatu eta arautzea, gutxienez lau urtean behin, baita proiektu jakinei buruzkoak ere, egoki irizten direnean.
- m) Lehendakariak proposatuta, Idazkari Nagusia izendatzea.

## Laugarren atala: Zuzendaritza Exekutiboa

### 20. art.: Zuzendaritza Nagusia

Zuzendaritza Nagusia Elkartearen ohiko jarduerak kudeatu eta betearazteko organoa da, eta Artezkaritza Kontseiluak izendatuko du.

## 21. art.: Eskumenak

Zuzendari Nagusiak honako eskumen hauek ditu:

- a) Batzar Nagusiaren eta Kontseilu Errektorearen erabakietatik eratorritako ekintzak betearaztea.
- b) Elkartearen ohiko jarduerak programatzea, eta Kontseilu Errektorearen aurrean Plan Estrategikoak, Urteko Gestio Plana eta urteko gastu eta sarreraren Aurrekontua aurkeztea, behin-behinean onartu eta gero Batzar Nagusira eramateko.
- c) Programa eta proiektuen funtzionamendu egokia zaindu eta kontrolatzea.
- d) Eta Kontseilu Errektoreak eskuordetutako beste edozein funtzio.

## 22. art.: Zuzendaritza Batzordea

Zuzendaritza Nagusiak koordinazioa eta jarraipena egiteko batzorde bat izango du: Zuzendaritza Batzordea. Hark honako kide hauek izango ditu:

- a) Administrazio- eta finantza-arduraduna.
- b) EI-SEV elkarteko kudeaketa-eremu nagusietako pertsona arduradunak.
- c) Lehendakariak egokitzen jotzen duenean, hark gonbidatu gisa joan ahal izango du Zuzendaritza Batzordeko bileretara. Era berean, Kontseilu Errektoreko beste kide batzuk gonbidatu ahal izango ditu unean-unean.

Hura hilean behin bilduko da ohiko kudeaketaren jarraipena eta deskargua egiteko, betiere Zuzendaritza Nagusiaren ekimen bidez edo kideren batek hala eskatuta.

## Bosgarren atala: Kide bakarreko organoak

### Lehen azpiatala: Lehendakariak.

## 23. art.: Lehendakariak

Elkartearen Lehendakaria Erakundearen legezko eta zuzenbideko ordezkaria da eta kide anitzeko organoen erabakiak betearaziko ditu. Gainera, organo horietako lehendakaria izango da. Euskal zientziaren, ikerkuntzaren, kulturaren eta jarduera profesionalaren arloetan pertsona ospetsua izan behar du, eta Elkarteko bazkidea, gainera.

## 24. art.: Lehendakariaren zereginak

1. Lehendakariak honako zeregin hauek izango ditu:

- a) Elkarteko buru eta ordezkaria izatea.
- b) Batzar Nagusiaren eta Kontseilu Errektorearen bileretarako deialdia egitea. Hala dagokionean, interesgarri irizten dien pertsona guztiak gonbidatu ahal izango ditu, hitzarekin baina botorik gabe.
- c) Parte hartzen duen bilera guztietako buru izatea, horietan kalitateko botoa izatea eta kide anitzeko organoen bileretako aktak ontzat ematea.
- d) Batzar Nagusiaren eta Kontseilu Errektorearen jarraibideak aplikatzea eta erabakiak betearaztea, eta horiei bere gestioaren berri eman eta horien aurrean erantzule izatea.
- e) Elkartearen Idazkari Nagusia izendatzea.
- f) Elkartearen izenean tituluak eta egiaztagiriak egitea.
- g) Pertsonala kontratatzea, Elkartearen lan-jarduera egokiaz eta diziplina-araubidearen aplikazioaz erantzutea eta Kontseilu Errektoreari gai horrekin zerikusia duen guztiaren berri ematea.
- h) Urteko Memoria egiteaz, buletina argitaratzeaz eta Elkarrekin editatzen dituen argitalpen zientifiko eta dibulgatiboaz arduratzea Kontseilu Errektorearen aurrean.

- i) Plan Estrategikoak proposatu, zuzendu eta bultzatzea, Kontseilu Errektorearen aurrean behin-behinean onar ditzan aurkezteko eta ondoren Batzar Nagusira eramateko.
  - j) Elkartearen Gestio Plana, Aurrekontu Proiektua eta Kontu Orokorrak gainbegiratzea.
  - k) Lehendakaria edo berak eskuordetutako pertsona EI-SEVek gehiengo duen erakundearen lehendakaria ere izango da.
2. Lehendakariak, gainera, legeriak, Estatutuak eta horren garapen-arauek agindutako gainerako zereginak beteko ditu, baita Batzar Nagusiak, Kontseilu Errektoreak edo Zuzendaritza Batzordeak eskatutakoak ere.

## Bigarren azpiatala: Idazkaritza Nagusia

### 25. art.: Idazkaritza Nagusia

Idazkari Nagusia arduratuko da Idazkaritzaz eta Diruzaintzaz. Honako eginkizun hauek izango ditu, zehazki:

- a) Parte hartzen duen organoen saioretako aktak egitea eta idazkari gisa lekuko den edo Elkartearen dokumentazioan ageri diren akordio, ekintza edo gertaeren egiaztapenak egitea.
- b) Batzar Nagusiaren eta Kontseilu Errektorearen akta- eta erabaki-liburua egin eta zaintzea.
- c) Elkartearen erabakien publikitatea bermatzea.
- d) Elkartearen artxibategi orokorra zaintzea.
- e) Elkartearen ekitaldi solemneak antolatzea eta protokoloa betetzen dela zaintzea.
- f) Kontseilu Errektoreak onartu beharreko arauak idatzi eta proposatzea.
- g) Kontseilu Errektorearen laneko agiriak prestatzea.
- h) Lehendakariaren jarraibideak betez, Elkartearen jarduera ekonomiko-administratiboa arautuko duten urteko Aurrekontuak -ohikoak zein ezohikoak- gainbegiratzea, Kontseilu Errektoreak onartzeko.
- i) Kontseilu Errektoreak agindutako beste edozein funtzio.

### Hirugarren azpiatala: Lurraldeko Lehendakariordetza

#### 26. art.: Lurraldeko Lehendakariordetza

EI-SEVek 5 lurralde-lehendakariorde izango ditu, eta horiek Kontseilu Errektoreko 10 kideetatik 5 izango dira. Kontseilu Errektorean antzinatasunik handiena duen lurralde bakoitzeko kideak beteko du lurralde-lehendakariordetza.

Honako hauek dira lurralde bakoitzeko Lehendakariaren eginkizunak:

- a) Lurralde bakoitzaren proposamen eta jardura espezifikoak ordezkatu eta Kontseilu Errektorerara bideratzea, eta nor bere lurraldeko instituzio eta erakundeetan EI-SEVen ordezkari izatea.
- b) Lehendakariordea den lurraldearen erakundearen irudia eta presentzia sustatzea.
- c) Lurraldeko tokiko erakunde eta pertsonekin elkarrekiko konfiantzan oinarritutako harremanak finkatzea.
- d) Lurraldeko bazkideek adierazitako beharrei erantzuna ematea eta bazkide berriak erakartzea.
- e) Nork bere lurraldean proiektu interesgarriak sustatzea.
- f) Eta, oro har, lehendakariak eskuordetutako funtzio guztiak.

## **HIRUGARREN KAPITULUA**

### **GOBERNU ORGANOAK AUKERATZEA**

#### **27. art.: Hauteskunde-araudia**

EI-SEV-en hauteskunde-prozedurek Estatutu hauetan eta Kontseilu Errektoreak berariaz onartzen dituen arauetan jasotako oinarrizko aginduak beteko dituzte.

Lehendakaria eta Kontseilu Errektoreko kideak Batzar Nagusiaren hauteskunde-ekitaldi bakar batean aukeratuko dira.

#### **Lehen atala: Lehendakaria hautatzea**

#### **28. art.: Hautagaiak**

Lehendakari izateko hautagaiak Kontseilu Errektorean aurkeztuko dira, gutxienez lau herrialdetako bazkideen % 5en sinadurekin edo, bestela, Kontseilu Errektoreko kideen bostenen sinadurekin batera.

#### **29. art.: Hautatzea**

Jarduneko Idazkaritza Nagusian diharduen pertsonak hautagaien jarduketa-programaren eta *curriculum vitae* laburtuaren kopia bidaliko die bazkideei. Batzar Nagusian, hautagai bakoitzak bere programa laburki azaldu eta bertaraturako bazkideen galderei erantzun beharko die.

Boto-eskubidea duten pertsonak Batzar Nagusian elkartu eta Lehendakaria aukeratuko dute.

Boto gehien lortzen dituen hautagaia Lehendakari izendatuko dute. Berdinketa izanez gero, berdindutako hautagaien arteko bozketa egingo da, eta beste berdinketa bat izanez gero, Eusko Ikaskuntzan antzinasunetik handiena duen hautagaia izendatuko da Lehendakari.

#### **30. art.: Zentsura-mozioa**

Batzar Nagusiak, horretarako berariaz deituta, kargutik kendu ahal izango du EI-SEVeko Lehendakaria. Horretarako zentsura-mozio bat onartu beharko du gehiengo osoz, gutxienez Kontseilu Errektoreko %10 kideren adostasunarekin eta ordezeko hautagaia aurkeztuta.

#### **Bigarren atala: Kontseilu Errektoreko kideak aukeratzea**

#### **31. art.: Hautagaiak**

Kontseilu Errektoreko kide izateko 17.1.b) artikuluan ezarritako hautagaitzak lurraldeko bazkideek soilik osatuko dituzte eta Kontseilu Errektorean aurkeztuko dira, lurralde bakoitzeko bazkideen % 1en sinadurekin edo, bestela, Kontseilu Errektoreko 2 kideren sinadurekin batera.

#### **32. art.: Hautatzea**

Idazkari Nagusiak hautagaien *curriculum vitae* laburtua helaraziko die bazkideei.

Batzar Nagusia deitutakoan, bazkideek, lurraldeka bereizita, Kontseilu Errektoreko kideak aukeratuko dituzte.

Bazkide bakoitzak bere lurraldea ordezkatzeko duen kidea aukeratzeko bozketan parte hartuko du. Lurralde bakoitzean boto gehien lortzen dituen hautagaitza aukeratuko da.

#### **33. art.: Berritzea**

Kontseilu Errektorea 10 kidek osatzen dute, eta bi urtean behin kideen erdiak berrituko ditu.



## LAUGARREN KAPITULUA BAZKIDEAK

### 34. art.. Definizioa

Erakunde sortzaileak eta laguntzaileak ez ezik, idatziz eskatu ondoren Kontseilu Errektoreak onartutako pertsona fisikoak eta juridikoak ere izango dira Elkarteko bazkide.

### 35. art.: Bazkide motak

Bazkideak –horien eskubideak ondoko artikuluetan zehaztuko dira– lau motatakoak izan daitezke:

- a) Sortzaileak: Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Nafarroako Foru Gobernuak.
- b) Laguntzaileak: udalak, erakundeak, fundazioak, elkarteak eta gainerako erakunde publikoak edo pribatuak izan daitezke, baita izaera horrekin izena emanda diru-ekarpenen bidez Elkartearen jarduerak babesten dituzten pertsona partikularrak ere.
- c) Arruntak: Kontseilu Errektoreak onartutako pertsona fisikoak, horiek hala eskatu ondoren.
- d) Ohorezkoak: Elkarteari eskainitako ardura eta zerbitzu bereziak edo haien meritu nabarmenak direla eta halako izaera onartu zaienak.

### 36. art.: Eskubideak

1. Elkarteko bazkideek honako eskubide hauek izango dituzte:
  - a) Elkartean hartutako jarduera, proiektu eta erabakien informazio puntuala izatea.
  - b) Hausnarketa-, azterketa-, ikerketa-, prestakuntza- eta dibulgazio-taldeak sortzea, Elkartearen egituraren parte hartzeko bide gisa.
  - c) Elkartearen instalazio eta azpiegiturretara sartzea, erabilera onerako arauak errespetatuz, eta Elkartean onartutako hausnarketa-, azterketa-, ikerketa-, prestakuntza- eta dibulgazio-proiektuetarako behar den laguntza jasotzea.
  - d) Boto- eta sufragio-eskubide aktiboa eta pasiboa erabiltzea Batzar Nagusia aukeratzeko prozesuetan, baita Gobernu Organoetako kide hautatuak aukeratzeko prozesuetan ere. Gainera, Batzarrean parte hartzea, Ordezkaritza Organoetan, Zuzendaritzan eta Lan Taldeetan, aurreikusitako bideak jarraituz.
  - e) Horretarako baimena ematen duten bazkideen nortasuna, harremanetarako helbidea eta zientziari, kulturari edo lanbideari loturiko datu interesgarriak ezagutzekoa.
  - f) Elkartearen Bazkide Liburua, Akta Liburua eta Kontu Liburua eskuratzekoa, baita gobernu-organoen osaera ezagutzekoa ere, datu pertsonalen babesari buruzko araudiak aurreikusitako moduan.
  - g) Elkartearako kideen zerrenda edonoiz ezagutzekoa.
  - h) Dagozkien gaietan, eta batez ere beraien aurkako diziplina-neurriak hartu aurretik, haiei entzutekoa eta halako neurriak eragin dituzten ekintzen berri jakitekoa, eta hala badagokio, zigorra ezartzen duen erabakia arrazoitua izatekoa.
  - i) Elkartearen organoen erabakiak jurisdikzio zibilean aurkaratzekoa, ordenamendu juridikoaren eta/edo Estatutuen aurkakoak direla iritziz gero eta Prozedura Zibilaren Legearen prozedurari jarraiki. Erabakia argitaratu edo jakinarazi ondorengo hilabetean igarotakoan ekintzak ez du indarrik izango.
2. Ezarritako kuotak ordainduta izatea ezinbesteko baldintza izango da bazkideek dagozkien eskubideak erabiltzeko, Kontseilu Errektoreak onartutako banakako lekapenetan izan ezik.
3. Eskubide horiek eta Elkartearekin harremanak dituzten pertsonenak beteko direla bermatzeko, Elkartean bazkideen erregistro-liburua, kide anitzeko organoen bileretako akta-liburua eta kontabilitate-liburua legez gaituta izango ditu.

### 37. art.: Betebeharrak

Elkarteko bazkideek honako betebeharrak hauek izango dituzte:


- Modu aktiboan lankidetzan jardutekoa, Elkartearen helburuak lortzeko.
- Gastuei aurre egiten laguntzekoa, Kontseilu Errektoreak erabakitako kuota edo derramak ordainduz.
- Elkartearen gobernu-organismoetan, lantaldeetan eta ohiko jardueretan boluntario gisa modu aktiboan parte hartzekoa.

Elkartearen gobernu-organismoek hartutako baliozko erabakiak onartu eta betetzeko.


### 38. art.: Bazkide laguntzaile pertsona juridikoak

Pertsona juridikoak diren bazkide laguntzaileek bazkide arrunten eskubide eta betebeharrak berberak izango dituzte. Jarduera pertsonala eskatzen duten eskubideak erabiltzeko, behar bezala baimendutako ordezkaria izendatuko dute.

### 39. art.: Borondatezko jarduerak

- 
- Ohiko kuota ordaintzeaz gain, finantzaketa bilatu, ikertu, gestionatu, hedatu eta ezagutarazteko jarduerak betetzeko aldizka eta sistematikoki beren denboraren zati bat Elkarteari eskaintzen dioten bazkideak bazkide boluntariorzat aitortuko dira.
  - Bazkide boluntarioek, Estatutu hauetan jasotakoak ez ezik, kontratu baten bidez formalizatuko diren beste eskubide eta betebeharrak batzuk ere izango dituzte.
  - Bazkide boluntarioek beren lanaren aitortpen formalak jasoko dute.
  - Bazkide boluntarioen erregistro eguneratua egingo da.

### 40. art.: Zigor-araubidea

- 
- Kontseilu Errektoreak zigortu ahal izango ditu bazkideak Estatutuak edo Elkartearen gobernu-organismoen erabakiak larriki urratzeagatik.
  - Zigorrik txikiena bazkide-eskubideak hamabost egunetik hilabetera bitartean etetea eta handiena Elkartetik behin betiko bereiztea izan daitezke.
  - Horretarako, Lehendakariak ikerketa bat zabalitzeko agindu ahalko du, zigorra jaso lezaketen jokabideak argitzeko. Idazkari Nagusiak espedientea aurrera eraman eta Kontseilu Errektoreari dagozkion neurriak hartzea proposatuko dio. Zigorrak ezarri aurretik, eragindako pertsonari entzun egin beharko zaio eta dagozkion espedientea osatu beharko da.
  - Zigor-erabakia arrazoitua izango da beti eta eragindakoak horren aurkako errekurtsoa aurkeztu ahalko dio Kontseilu Errektoreari eta, ondoren, ohiko auzitegietan.

### 41. art.: Bazkide izateari uztea

- Bazkide-izaera honako kasu hauetan galduko da:
  - Heriotzagatik edo, pertsona juridikoen kasuan, desegiteagatik.
  - Bazkideak nahita bereizteagatik, idatziz jakinarazita.
  - Zigor bidez bereizteagatik, Kontseilu Errektoreak hala erabakita eta Batzar Nagusiak berretsita.
- Bazkideak gutxienez hiru urtez kuotak ordaintzen ez baditu bidezko arrazoirik gabe, Kontseilu Errektoreak bazkide-izaera galtzea erabaki ahalko du, diziplina-espedienterik egin gabe.

## **BOSGARREN KAPITULUA ELKARTEA DESEGITEA**

### **42. art.: Desegiteko arrazoiak**

1. Elkarteak honako arrazoi hauengatik desegingo da:
  - a) Bazkideek hala erabakita, berariaz deitutako Batzar Nagusian, bertaratuen botoen gehiengo osoarekin.
  - b) Kode Zibilaren 39. artikuluan jasotako arrazoiengatik.
  - c) Epai irmoagatik.
2. Elkarteak desegiten bada, haren ondasunak desegiteko unean babesten eta finantzatzen zuten erakunde sortzaileei emango zaizkie, horiek kulturarekin lotutako helburuetara bideratzeko.

### **XEDAPEN IRAGANKORRA**

Estatutu hauek onartu ondorengo lehen Kontseilu Errektorea osatzeko, honela jokatu da:

- Estatutu hauek onartzeko unean jardunean dauden bost lehendakariordeetako bakoitza Kontseilu Errektoreko kide bihurtuko dira, lurraldeko lehendakariorde gisa.
- Gainerako bost kideak izendatzeko, Estatutu hauetako Hirugarren Kapituluako Bigarren Atalean zehaztutakoaren arabera jokatu da.

### **LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA**

1. Estatutu hauek onartzeko unean, erakunde, egitura edo sozietate filial hauek EI-SEVEN orientabide eta ardurapean aritzen dira, nahiz eta autonomoak izan:
  - Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioa
  - Eusko Ikaskuntzaren Euskomedia Fundazioa
2. Era berean, EI-SEVEK lankidetzaren harreman pribilegiatuak ditu José Miguel de Barandiaran Fundazioarekin, hura ere EI-SEVEK sortu baitzuen bere garaian.

### **BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA**

Eusko Ikaskuntzak lankidetzaren harremanak izango ditu Euskaltzaindiarekin.

### **HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA**

1. Eusko Ikaskuntzak harreman eta lotura berezia eta iraunkorra izango du Jakiunderekin, Jarraipen Batzorde Mistoaren bidez. Gutxienez bi erakundeetako Lehendakariak osatuko dute batzorde hori.
2. Era berean, elkarrekikotasunez, Eusko Ikaskuntzak Jakiundeko lehendakaria gonbidatuko du bere Batzar Nagusietara, eta alderantziz.

### LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Elkartearen jardueran emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko eta ohiko zereginetan genero-ikuspegia eraginkortasunez txertatzeko xedez:

1. Horretarako, honako hauek dira EI-SEVEN jarduna zuzendu eta bideratu behar dituzten irizpide orokorrak: tratu-berdintasuna, aukera-berdintasuna, dibertsitatearekiko eta ezberdintasunarekiko begirunea, genero-ikuspegia txertatzea, ekintza positiboa, sexuaren araberako rolak eta estereotipok ezabatzea, ordezkaritza orekatua eta elkarrekiko koordinazioa eta lankidetzeta.
2. Eusko Ikaskuntzak, bere ikerketa eta estatistikak egitean, honako arau hauek beteko ditu: Egiten dituen estatistika, inkesta eta datu-bilketetan sexu-aldagaia sistematikoki txertatzea. Emakumeen eta gizonen balioetan eta egoeretan dauden desberdintasuna jakitea ahalbidetuko duten adierazle eta mekanismoak, baita orotariko bazterkeria-egoerak sortzen dituzten beste adierazle batzuk ere, txertatzea. Lagin zabalak erabiliko ditu, sexuaren aldagaiaren arabera aztertu ahal izateko. Salbuespenez, organo eskudunak onartutako txosten arrazoituaren bidez, aurretik azaldutako betebeharren bat ez betetzea justifikatu ahalko da.
3. Eusko Ikaskuntzak hizkuntza ez-sexista erabiliko du zuzenean edo hirugarren pertsona edo erakundeen bidez ekoizten dituen agiri eta euskarrietan.

### AZKEN XEDAPENA

Kontseilu Errektoreak edonoz ebatzi ahal izango ditu Estatutu hauen interpretazioan sor litezkeen arazoak eta behar diren erabaki osagarriak hartuko ditu.

